GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL
intef INSTITUTO NACIONAL DE TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO
MINISTERIO DE HACIENDA Y FUNCIÓN PÚBLICA

GOBERNU IREKIA

Batxilergoa

IRAKURKETA ERRAZEAN

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Título: Gida didaktikoa gobernu irekia batxilergoa. Irakurketa Erraza

Documento Accesible

Publicación del programa de publicaciones del

Ministerio de Hacienda y Función Pública
Hecho por:
© Ministerio de Hacienda y Función Pública.
2021

Códigos para encontrar el documento original del Gobierno

NIPO: 277-21-022-8 (papel)
NIPO: 277-21-023-3 (en línea, pdf.)

Gobernu Irekiari buruzko Hezkuntza gida

Batxilergoa

Gobernu Irekiari buruzko Hezkuntza gida 4

Zergatik egin dugu gida hau? 6

Nork egin du gida hau? 7

Gidaren helburuak..... 8

Zer da Espainiako Gobernu Irekiaren Plana? 9

Gobernu irekia hezkuntza sisteman 10

Gobernua eta Administrazio publikoa 12

Zer da Gobernu irekia?..... 13
- Testuingurua eta eboluzioa..... 14
- Guztien kontzeptu esparrua..... 17
- Gobernu irekiaren balioak..... 19

Gobernu irekiaren hiru oinarriak 21

Gardentasuna eta kontuak ematea 22
- Gardentasunaren ataria 23

Herritarren parte-hartzea..... 28
- Nola parte hartzen dugu? 29

Elkarlana 33
Sorkuntza bateratua 34

Datu irekiak 35

Sare sozialak..... 37

Laburpena 40

Ariketak 41
Badugu institutu irekia. Orain zer egingo dugu?..... 47

Gobernu Irekiari buruz gehiago jakiteko helbideak 48
Gardentasun Atariak 48
Denontzako datu irekien atariak 50
Gardentasunari buruzko aholku
eta informaziodun atariak 50
Gobernu Irekiari buruzko argitalpenak:
ikerlanak, analisiak eta gidak..... 52

Hiztegia 53

Zergatik egin dugu gida hau?

Gobernu irekiaren kontzeptua gero eta presenteago dagoelako
berrietan, diskurtso politikoetan, lan akademikoetan,
sare sozialetan...

Taldeko gaien gobernua ulertzeko modu berri bat da
eta arduradun politikoak eta herritar guztiak sartzen ditu.

Gobernu irekiaren jatorrizko kontzeptua 18. mendetik dator, Suediatik.
Ondoren, berriz hitz egiten da honetaz 2009 urteko gardentasunerako
eta Gobernu irekirako Memorandumaren aurkezpenean.
Hau Barack Obamakek Estatu Batuetan hartutako lehen neurria izan zen.

Mundu osoko gobernu eta administrazio publikoek
gero eta gardenago, irisgarriago eta sentikorrago izan nahi dute
herritarren eskaera eta beharrekin.
Horrela lortuko dira gobernantza demokratikoa,
gizarte kohesio handiagoa eta garapen ekonomiko aberatsa.

Gida hau jaio da Espainiako Gobernu irekiaren Planaren tresna bezala.
Alde batetik, Batxilergoko ikasle eta irakasleak gerturatu nahi ditu
Gobernu irekiaren balio eta printzipioetara,
hauek gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana izanik.
Beste hainbat herrialdek partekatzen duten
prozesuaren partaide egin nahi dira.

Bestalde, Gidak lagundu nahi du Estatu irekiago
eta arduratsuago baten eraikitzean, herritar zorrotzekin
arduradun politikoen, legebiltzarren, epaileen eta ondasun
eta zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten pertsonen ekintzekin.

Bukatzeko, Gidak nahi du Batxilergoko ikasleek lor dezatela
gaitasun sozial eta herritarra.
Hau ezinbestekoa da haien garapen pertsonal, sozial eta profesionalerako.
Tresnak ematen dizkie gizartean sartzeko ardurarekin
eta sistema demokratikoan parte-hartzeari buruzko ezaguerekin.

Nork egin du gida hau?

2 ikerlarik idatzi dute gida hau:
José Ignacio Criadok eta Vicente Pastorrek.

José Ignacio Criado

Irakaslea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eta Berrikuntza Publikorako Gobernuko Laborategiko zuzendaria.
Twitterren izena du: @jicriado

Vicente Pastor

Ikertzailea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eta Berrikuntza Publikorako Gobernuko Laborategian.
Twitterren izena du: @vipaspa

Irakurketa Errazera egokitzapena:
Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Erraza

Gidaren helburuak

- Administrazioaren eta Gobernuaren ezaguerak sustatzea.
- Gizarteari onurak ekarriko dizkion gobernu irekiaren printzipioetan oinarritutako kontzientzia zibikoa sortzea ikasleengan.
- Gobernu irekiari buruzko kontzeptu esparrua partekatzea nazioartean, eta baita eztabaidari ateak irekitzea ere.
- Hiritartasun demokratiko eta gardentasunaren erabilera sustatzea.
- Gobernu ireki baten politikak ezartzeko jardunbide egokiak ezagutzea.

Zer da Espainiako Gobernu Irekiaren Plana?

Ikus ezazu ekintza Plan hau esteka honetan:
https://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/Gobierno-abierto/planes-accion.html

Bilatu Plana nola egituratzen den, zein helburu eta ezaugarri dituen,
zein arlotan aritzen den.
Arlo horiek konpromisoetan zehazten dira.
Ikusiko duzu konpromiso horietako bat Gida hau egitea dela,
Gobernu irekiari buruzko trebakuntzarako.

Bestalde, Gobernu irekirako Aliantza 2011ko ekimena da.
70 herrialdek parte hartzen dute
gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko.

Espainia Gobernu irekirako Aliantzako kide da.
Horrek esan nahi du Gobernu irekiaren Adierazpena egin duela:
https://www.opengovpartnership.org/declaracion-de-gobierno-abierto/

Gobernu irekiaren Adierazpena begira ezazu
eta zure gelakideekin hitz egin ea erakunderen batek
emandako antzeko adierazpenen bat ezagutzen duzuen.
Ondoren, taldeka, egin Gobernu irekiaren adierazpen bat
zuen institutuko egoerara egokituta
eta zuen ingurua hobetzeko helburuarekin.

Gobernu irekia hezkuntza sisteman

Herritarren parte-hartzea eta konpromisoa gehiagotu nahi badugu, hau da, Gobernu irekia, hezkuntza arlotik hasi behar gara.
Hau gauzatzeko, elkarrizketa eman behar da, praktika berriak sartu eta pertsona guztien artean berdintasunez erlazionatu behar gara.
Zuk ere egin dezakezu Gobernu irekia!

Gobernu irekia hezkuntza sistemara gertura dezakegu:

- Ikasgelan:
  - **Parte-hartzea** sustatu barneko hauteskunde prozesuetan.
  - **Informazioa** argitaratu maila bakoitzeko ikasle kopuruei buruz, ikasgelako lanen edo jardueren antolaketei buruz…
  - Bultzatu ikasleen artean elkarlanean **erabakiak hartzea**.
  - Erabaki hartzeen prozesuak **aztertu** eskola Kontseiluan eta akordioak **argitaratu**.
- Eguneroko bizitzan:
  - **Kontzientzia zibikoa** sortu ikasleen artean, Gobernu irekiaren printzipioetan oinarrituta.
  - Ikasleei Gobernua eta Administrazioa **zer den azaldu**.

Gobernu irekia institutuan, 1. adibidea:

Galdetu irakasleari azkeneko bost urteetan
zenbat ikaslek gainditu dituzten azken azterketak.

Adi egon! Inoren datu pertsonalak eman gabe,
legeek hori debekatzen baitute.
Irakasleak informazio hori ematen badizue
Administrazio publiko (zuen institutua) baterako lan egiten duen
pertsona baten (irakaslearen) jarduera gardena egiten ari gara.

Gobernu irekia institutuan, 2. adibidea:

Noizbait pentsatu al duzu institutuko eskola Kontseiluko
parte izateko hauteskundeetara zure burua aurkeztea?

Institutuko ikasle guztiak barne hartzen dituen
plataforma sozial batean talde bat sor dezakezu.
Honek elkarlana baimenduko du Kontseiluko bileretan
eztabaidatzen diren gai guztiei buruzko informazioa partekatzerakoan:
klaseak, ordutegiak, zentroko araudia edo beste gaiak.

Gobernua eta Administrazio publikoa

Gobernua organo politiko bat da.
1978ko Espainiako Konstituzioaren aginduz existitzen da.
Estatuko presidenteak eta Ministerioen ardura hartzen duten
ministro kopuru aldakor batek osatzen dute.
Ministerioak denboraldi edo legealdi bakoitzean sortzen dira (4 urtero).
Autonomia Erkidego bakoitzean ere gobernu bat dago.

Administrazioa organo iraunkor multzo bat da.
Guztion interes orokorrak zerbitzatzen dituzte objektibotasunez
eta legearen arabera aritzen dira.
Eraginkortasun, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio
eta koordinazio printzipioen bidez aritzen dira.
Administrazioa estatukoa, autonomiakoa edo tokikoa izan daiteke.

Botere betearazleak Gobernua eta Administrazio publikoa batzen ditu.
Botere betearazleak Parlamentuan onartzen diren legeak
ezartzen eta betetzen ditu.
Gida honetako Gobernu irekiaren kontzeptuak
botere betearazlearen bi organo hauek barne hartzen ditu.

Irudian ikus dezakezu Estatu irekiaren parte direla
botere betearazlea, legegilea eta judiziala.
Gida honetan Gobernu irekiaren kontzeptura mugatzen gara,
Gobernu eta Administrazio publiko irekia barne hartzen dituena.
Baina ez ahaztu Estatuko beste botereekin eta gizartearekin duen lotura.



Zer da Gobernu irekia?

Gobernu eredu berri bat da eta hauek bultzatzen ditu:

- **gardentasuna** politikoen eta Administrazio publikoko funtzionarioen jokaeran.
- herritarren **parte-hartzea**.
- **elkarlana** beste eragileekin.

Irakaslearekin eta ikaskideekin hitz egin definizio honi buruz:

> Gobernu irekia elkarreragin soziopolitikoa da.
> Gardentasunean, kontuak ematean, parte-hartzean
> eta elkarlanean oinarritzen da.
> Elkarrizketarako irekiago dagoen gobernu modu bat da,
> gobernuen boterearen eta gobernatuak direnen arteko
> oreka gehiagorekin, eta aldi berean,
> herritarrak erantzunkide ere aitortzen ditu.
> Helburuak dira: erabakiak hartzean hobetzea
> eta herritarrak barne hartzea gai publikoen kudeaketan,
> horrela ezaguera handitzen da eta berrikuntza publikoa abiatzen da.
> **Iturria:** Elkarlaneko definizioa. Novagob sare sozialeko eztabaida.



Gobernu irekian, elkarrekin lan egiten dugu:

- herritarrek hauteskundeetan aukeratzen dugun ordezkari taldeak
- Administrazio publikoan lan egiten duten pertsonek
- gainerako herritarrek.

Horregatik, herritarrak, zu, zure gelakideak, familia, lagunak,
Gobernu irekiaren egunerokoan partaide izan behar gara.

Testuingurua eta eboluzioa

Gobernu irekia hitzak 20. mendean agertu ziren.
Aipatzen zuen Gobernuen eta Administrazio publikoaren jokaeran gardentasuna gehitzeko nahia,
herritarrek haien funtzionamendua kontrolatu eta ebaluatzearen bidez.

Orain Gobernu irekiaren ideia berreskuratu dugu arrazoi hauengatik:

- Gardentasun politikoaren aldeko jarrera hazten ari da.
- Ustelkeria eta baliabide publikoak gaizki erabiltzearen arazoak gehiago agertzen dira komunikabideetan.
- Parte-hartzearen kultura zabaltzen ari da gero eta konektatuago dagoen mundu batean.
- Gobernuek eta Administrazioak gero eta elkarlan gehiago behar dute gizartearekin arazo korapilatsuak konpontzeko.
- Komunikatzeko modu berriak agertzen ari dira, teknologia berrietan oinarrituta.
- “Gizarte sare” bat hazten ari da mundu mailan, sare sozial eta 2.0 web teknologiei esker.

Ordenagailu, mugikor eta tabletak
ikasteko eta lan egiteko moduak aldatzen ari dira.
Jarduera gehiago egitea baimentzen digute
komunikatzeko sare hauen bidez, adibidez:

- lagunekin edo gurasoekin eztabaida batean parte hartu Whatsapp kanal batean.
- bizi garen herria hobetzen lagundu Twitter edo Instagram bidez.
- gure udaleko ordezkari politikoek egiten dutenaren informazioa lortu gardentasun atari batean.

Guzti hau edozein tokitatik Internetera lotutako gailu batekin!

Wikipedia

Noizbait zerbait bilatu duzu edo lagundu duzu bertan?

Wikipedia gizateriaren historian egon den
ezagueren entziklopedia handiena da.
45 milioi artikulu baino gehiago aurki ditzakezu
300 hizkuntza ezberdinetan, munduko toki askotako
pertsona boluntarioen ahaleginarekin eginak.

Aurki ezazu Gobernu irekiaren definizioa Wikipedian
eta gaian gehiago sakondu ezazu.

Bestalde, zuk ere lagundu dezakezu Wikipedia garatzen.
Artikulu berriak idatzi edo argitaratuta daudenak hobe ditzakezu.
Adibidez, zure herriko datuak deskribatzen dituen artikulua begiratu
eta erantsi falta diren datuak.

“Hezkuntza” atala sor ezazu
eta deskribatu institutuen izenak eta haien historia.
Gonbidatu beste institutuetako ikasleak elkarrekin lan egitera.
Edukirik onenak sortzeko modurik onena da!

Wikipedia web-orriko irudia:
Gobernu irekia: https://eu.m.wikipedia.org/wiki/Gobernu_ireki

Guztien kontzeptu esparrua

Gobernu irekia teknologia gabe ere lor daiteke.
Hori herritar moduan dugun jarreraren esku dago,
gizarteko gaietan sartzeko gure gaitasunaren esku,
eta gure bizitzan eragiten duten gaiei buruzko gure iritzi eta ekintzekin
politikariei lagunduko diegula ulertzearen esku.

Gobernu eta Administrazio publiko bat irekiak izan daitezen,
baldintza hauek bete behar dituzte:

- Komunikazio kanal irekiak erabiltzen dituzte
  eta kanal horietan herritarrek parte hartzen dute.

- Web atarietan funts publikoekin kudeatzen den
  informazio guztia argitaratzen da,
  berrerabiltzea errazten duen formatu batean (datu irekiak).

- Herritarren, bertako profesionalen eta gai publikoetako
  beste erakunde batzuetako profesionalen
  parte-hartze zuzenerako tresnak bideratzen dituzte.

- Beste gobernu eta administrazio publikoekin elkarlana bultzatzen dute,
  baita gizarteko erakundeekin ere (enpresa eta GKEak),
  gizarteko arazoak konpontzeko.

Jarduera

Gobernu irekiari buruzko hitzen hodei bat irudika ezazu:
gardentasuna, parte-hartzea, elkarlana, datu irekiak, integritate publikoa,
talde adimena, partekatutako erantzukizuna, datu publikoen berrerabiltzea,
balio publikoa...

Orain 3 edo 4 pertsonako taldetan antolatu zaitezte
eta aukeratu bi hauetako bat:

1. Mapa mental bat sortu Gobernu irekiarekin lotutako kontzeptuekin.

2. Aukeratu kontzeptu hauetako bat: gardentasuna, parte-hartzea, elkarlana.
Eta poster digital bat egin modu bisualean azaltzen direlarik.

Gobernu irekiaren balioak

- **Irekitasuna**

  Ez ezkutatzea gobernuak egiten dituen ekintzak
  eta beste pertsonengan dituzten ondorioak.

- **Elkarrekiko konfiantza**

  Gobernuengan eta Administrazioarengan sinistea,
  organo horiek herritarrengan sinisten duten bezala.

- **Elkarlana**

  Beste pertsona eta erakundeekin elkarlaneko ekintzak bultzatzea,
  bakarka edo isolatuta eginda baino emaitza hobeak lortzeko.

- **Inklusibitatea**

  Pertsona guztiak kontuan hartzen dituen ekintzetan sinistea,
  haien egoera sozioekonomikoa, desgaitasun fisiko edo intelektuala,
  sexua, etnia, erlijioa edo ideia politikoak kontuan izan gabe.

- **Zintzotasuna**

  Beti jardutea zuzentasunez, leialtasunez, zintzotasunez,
  inpartzialtasunez eta fede onez.

- **Berrikuntza**

  Gauzak egiteko modu berriak garatzeko gai izatea
  eta pentsatzeko modu berriak bilatzea.

Gizartearentzako onurak

Gobernu irekia garatzeak onurak dakartza
herritar guztientzat eta beraz, zuretzat ere:

- Gai publikoetan herritarren kontzientzia eta kontrola gehiagotzen du.
- Erabaki politikoak hartzean eragiteko gaitasuna handitzen du.
- Esperientzia, iritzi eta ezagueren trukea errazten du
  sare sozial digitalen bidez.
- Gizartearen eta Administrazioaren arteko elkarlana hobetzen du
  ezagueren trukearen bidez.
- Agenda publikoan gaiak sartzea errazten du.
- Jarrera parte-hartzaileagoak bultzatzen ditu,
  baita Gobernu eta Administrazio publikoaren ekintzetan
  parte-hartze gehiago ere.

Gobernu irekiaren onura politikoak:

- Demokraziari kalitate hobea ematen dio.
- Kontuak ematea errazten du.
- Herritarren parte-hartzea eta elkarlana bultzatzen ditu.
- Administrazio publikoaren ateak irekitzen ditu,
  gardentasun neurriak ezartzearen bidez.
- Erakunde demokratikoengan herritarren konfiantza berreskuratzen da.
- Zuzenbidezko estatua indartzen du.
- Administrazio publikoaren eraginkortasuna hobetzen du.

Azkenean, onura ekonomikoek eragina dute gizarte osoan,
Gobernu irekiak ekonomian ere hobetzea ekartzen duelako:

- Arlo publikoan ustelkeria gutxitzen da.
- Gobernatzaile eta gobernatuak direnen arteko
  informazio asimetria kentzen du
  eta honek herritarrak eta Administrazio publikoa gerturatzen ditu.
- Jarrera arduratsuak bultzatzen dira
  eta jarrera eta ekintza okerrak mugatzen dira.
- Segurtasun juridikoa gehiagotzen da
  eta beraz, inbertsioak pizten dira.

Gobernu irekiaren hiru oinarriak

Hiru oinarriak dira: gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana.

Gobernuan eta Administrazio publikoan **gardentasuna**
haien ekintza guztien irekiera da,
horrela herritarrak argitaratzen duten informaziora iritsi daitezke.

Herritarren **parte-hartzea** pertsonak partaide garen prozesua da,
politika publikoen diseinu, kudeaketa eta ezartzean, parte izateko jarrerarekin.

Elkarlana Gobernu eta Administrazio publikoaren talde lana da
beste gobernu eta administrazio publikoekin,
sektore pribatuarekin edo gizartearekin,
politika publikoak definitzeko eta zerbitzu publikoak hobetzeko.

Gardentasuna eta kontuak ematea

Gardentasuna ekintza multzoa da eta herritarrei
gobernuei eta Administrazioari buruzko informazioa ezagutzea baimentzen die.
Bermatu behar dute pertsona edo erakunde batek
eskatzen duen informaziora iristeko eskubidea.

Kontuak ematea Gobernu edo Administrazio publikoek
haien ekintzei buruz azalpenak emateko
eta ardura hartzeko duten betebeharra da.

Gardentasuna eta kontuak ematea elkarrekin doaz:
Gobernu eta Administrazio publikoari eskatu ahal izateko
egiten duten guztian eta hartzen dituzten erabakietan arduratsuak izatea,
beharrezkoa da herritarrak haiek dituzten datu guztietara iritsi ahal izatea.

Kristalezko hormen metafora

Gardentasuna da herritarrek duten modua
gobernuek eta Administrazioak hartzen dituzten erabakiak
eta haiek egiten dutena jakiteko.

Horri kristalezko hormak izatea deitzen zaio.
Demagun zure udaletxeak kristalezko hormak dituela.
Kristala gardena denez, udalean gertatzen den guztia ikusiko genuke.

Kristalezko hormek kontuak ematean lagunduko digute,
adibidez, baliabide publikoak gaizki erabiltzen badira
erantzukizuna eskatzeko balioko liguke.

Gardentasunaren ataria

2013ko Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legeak jasotzen du:

- publizitate aktiboa administrazioen web atarien bitartez
- herritarren informaziora iristeko eskubidea.

Alde batetik, publizitate aktiboa informazio eta datu batzuk Administrazio publikoko gardentasun atarian argitaratzeko betebeharra da. Informazio hau aldiro eguneratu behar da.

Informaziora iristeko eskubidea herritarrek dugun gaitasuna da lortu nahi dugun Gobernuaren edo Administrazio publikoaren edozein datu eskatzeko.

Gardentasun tresna bat da **gardentasun ataria.**
Gardentasun ataria web orri bat da
eta Administrazioak herritarren esku jartzen duen informazio guztia du.
Informazio hori izan daiteke:

- Administrazio publikoen aurrekontuak
- Administrazio publikoan lan egiten duten goi-kargudunen soldatak
- ondasunen katalogoak
- kontratuak
- diru-laguntzak
- hitzarmenak beste administrazioekin, erakundeekin…

Espainiako Gobernuaren Gardentasun Atariak
1,5 milioi informazio datu irisgarri baino gehiago ditu.
Autonomia erkidego bakoitzak eta tokiko administrazioek
gardentasun ataria dute ere.

Jarduera

Espainiako Gobernuaren Gardentasun Atarira sartu esteka honetan:
http://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index.html
Goi kargudunen soldatak bilatu.

Orain konpara ezazu goi kargudunen baten eguneko agenda,
haren sare sozialetako jarduerarekin.
Agendan jarrita dagoen informazioa osoa al da?

Gardentasunaren atariek hainbat atal dituzte:

- **Erakundearen** informazioa, erakundearen gobernuari buruzkoa.
- **Arauen** informazioa, Administrazioaren legeekin.
- Informazio **ekonomikoa**, aurrekontuekin.

Nola erabili gure sartzeko eskubidea?

Gerta daiteke interesatzen zaigun informazio zehatza
ez egotea gardentasunaren atarian.
Adibidez, autonomia erkidego bakoitzeko institutuetatik lortutako
unibertsitatera sartzeko proben batez besteko notak.

Datu hauek argitaratzea ez da derrigorrezkoa,
baina autonomia erkidego batzuek eskatu dute eta argitaratu dira.

Jarduera

Gida honen bukaeran autonomia erkidego guztietako gardentasunaren atarirako esteka aurkituko duzu.
Zure autonomia erkidegoko gardentasunaren ataria begira ezazu eta bilatu autonomia erkidegoetako institutu guztietako unibertsitatera sartzeko proben batez besteko notak.

Informazio hori ez badago, erabili informazioa eskuratzeko zure eskubidea eta eskatu gardentasun atarian informazio hau argitaratzeko.
Administrazioak 30 egun ditu herritarrei erantzuteko eta eskatu dieten informazioa emateko.

Administrazioak erantzuten ez badu errekurtso bat aurkez dezakegu dagokion **Gardentasun Kontseiluan**.
Gardentasun Kontseilua estatuko eta autonomiako organoa da.
Espainian Administrazioaren gardentasuna zaintzen du eta horrelako egoerak konpontzen ditu.



Gogora ezazu datu guztiak ez direla publikoak
eta ezin direla denak eskatzen dituenari eman.
Gai batzuk ezin dira argitaratu.

19/2013ko Gardentasunari, informazio publikoa
eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legeko
14. artikuluak ezartzen du administrazio publikoek eta gobernuek
ezin dutela argitaratu hauei kalte egin diezaieken informazioa:

- segurtasun nazionalari
- interes ekonomiko eta merkatariei
- sekretu profesionalei eta jabetza intelektual eta industrialei
- konfidentzialtasuna edo sekretua behar duten erabakiei
- ingurunea babesteari...

Herritarren parte-hartzea

Gaur egun, Gobernu irekian parte-hartzeak
esan nahi du denek parte hartzen dugula
gobernu eta Administrazio publikoen erabaki eta ekintzetan.

Hezkuntza, osasuna, garraioak edo ingurunea
herritar guztiei eragiten diguten gaiak dira.
Herritarren parte-hartzearekin indartzen da
gure toki eraginkorra gai publikoen kudeaketan.

Nola parte hartzen dugu?

Parte-hartzeko modurik ezagunena hauteskundeetako bozketa da.
Baina Gobernu irekian parte-hartzea haratago doa.

Adibidez, Gobernuak plastikoa murrizteko lege baten aldaketa onartzeko eskaera bat eginez parte hartu daiteke.
Edo herritarren kontsulta bat egin daiteke.
Adibidez, haurrentzako edari azukredunei buruzko kontsulta bat, Gobernuari eskatzen delarik edari horiek
ez sartzeko ikastetxeetako jangeletako menuetan.

Jarduera

Pentsatu herritarren kontsulta bat egiteko gai interesgarriak.
Gaien zerrenda bat egin gelakideekin
eta denen artean 3 gai oinarrizkoenak aukeratu.

Zerbitzu publikoen diseinuan parte-hartzeko,
Gobernuak zerbitzu publiko horien erabiltzaileen iritzi
eta esperientziak eskatzen ditu.
Erabiltzaile horiek izan daitezke institutu bateko ikasleak,
osasun zentro bateko gaixoak, udal kiroldegi bateko kirolariak.

Adibidez, udal batek kontsulta prozesu bat hasten badu
auzo bateko bizilagunekin auzo hori hobetzeko,
bilera horietako batean enpresarien elkarte batek esku har dezake
eta irisgarritasuna hobetzeko beharra mahairatu dezake
bide egitura berriekin.

Parte-hartzea Estatuko Eskola Kontseiluan

Estatuko Eskola Kontseilua hezkuntza munduarekin
zuzenean zerikusia duten sektoreen parte-hartze organoa da.
Urtero Hezkuntza Sistemaren egoeraren txostena onartzen du
eta hor hezkuntzan hobetzeko proposamenak sartzen dira.

Gaur egungo testuinguruan, herritarren parte-hartzea
indartsua izan daiteke Internet eta sare digitalen bidez.
Oinarrizkoa da teknologien abantailez baliatzea.

Udal batzuek herritarrei baimentzen diete gai batzuei buruz erabakitzen:
nola gastatu dirua, kale bati zer izen eman,
plaza publiko bat birgaitzeko aukeren artean aukeratu.
Kasu horietan institututik edo etxetik parte har daiteke
eta eguneko edozein ordutan!

Jarduera

Espainiako udal batzuek Interneten plataforma espezializatua garatu dute herritarren parte-hartzea bultzatzeko.
Adibidez Sevillan (*Decide Sevilla* atari espezializatua)
https://www.sevilla.org/decidesevilla/
edo Madrilen (*Decide Madrid*).
https://decide.madrid.es/

Sartu eta aurkitu zer parte-hartzeko prozesu egiten ari diren eta haien herritarrei zer aukera eskaintzen dizkieten.
Egin zerrenda bat eta hitz egin ezazu gelakideekin.

Elkarlana

Elkarlana toki berriak sortzea da elkartzeko, hitz eta lan egiteko.
Hor parte hartzen dute gobernu eta administrazio publiko guztiek,
gizarteko erakundeek (GKEek), sindikatuek eta enpresa erakundeek,
baita herritarrek ere, denon artean zerbitzu publikoak sortu eta egiteko.

Elkarlan kontzeptuak arreta jartzen du **berrikuntza** balioan,
hau da gauzak modu ezberdin batean egitea
edo lehenago irudikatu ezin zen modu batean egitea.

Garrantzitsua da gobernuek eta Administrazio publikoak elkar ulertzea
eta denontzako konponbideak garatzea herritar gehienei on egiteko.
Baita ere funtsezkoa da beste gizarte erakundeak aintzat hartzea
gobernuek eta Administrazio publikoak ezin dituztelako jada
arazoak bakarrik konpondu.
Denon artean ideia, proposamen eta konponbideekin lagundu behar dugu.

Gobernu ireki bat eraikitzeko elkarlanak
eragile, ezaguera eta ideia asko lotzen ditu
eta honek kultura aldaketa sakona eskatzen du.
Horretarako, beharrezkoa da ikuspegi berriak bultzatzea
arazoak ezagutzeko, baita lan metodologiak
eta konponbide berritzaileak aurkitzeko praktikak ere ezagutzeko.

Elkarlanaren adibidea izango litzateke udal talde bat
arazo bera elkarrekin konpontzen saiatzea edo elkarrekin jardutea.
Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioaren (FEMP) bitartez
lotuta lan egiten dute eta talde bat sortzen dute
lagundu nahi duten eragile eta herritar guztiekin.

Sorkuntza bateratua

Elkarlanaren praktika da, hau da, ezaguerak sortzea da
erakundeetako, gizarteko eta politikako eragileen arteko elkar eragitearekin,
baita metodologia berritzaileak erabiliz ere.
Sorkuntza bateratua arazo zehatzengan aritzen da
eragiten dien pertsonen jarrera aldatzeko
eta arazoari buruzko begirada berria eta elkartua ematen du.

Administrazioko langileen, sektore akademiko eta pribatuen
eta gizarteko erakunde ezberdinen arteko elkarlanerako ahaleginak
gai publikoen kudeaketan ardura eta legezkotasuna handitzen du.

Berrikuntza laborategia konponbideen sorkuntza bateratuko gunea da
eta Gobernu irekian elkarlanaren ideia jarraitzen du.

Adibidez, Buenos Aires, Argentinako *Smart Lab* Berrikuntza Laborategia
Gobernu, gizarte eta sektore pribatuaren arteko
sorkuntza bateraturako gunea da.
Gizarteko arazo ezberdinei konponbidea aurkitzeko lan egiten dute.
https://www.buenosaires.gob.ar/noticias/el-laboratorio-de-la-ciudad

Datu irekiak

Datu irekiak argitaratuta daudenak dira
eta modu librean haietara iritsi gaitezke.

Alde batetik, gardentasuna bermatzen dute iturri ofizialetatik datozelako.
Bestalde, eraginkortasuna bultzatzen dute
eta zerbitzuak sortzen laguntzen dute
herritarren eta Administrazio publikoaren elkarlanaren bitartez.
Azkenik, datu irekiak aukeren berdintasuna bermatzen dute
denentzat sarrera bera dutelako.

Aporta ekimena datuen irekiera bultzatzen duten neurriak dira.
Neurri hauetako bat gune bat garatzea da
Gobernuak eta Administrazioak eskaintzen dizkiguten datuak **berrerabiltzeko**.

Datu Irekien Ataria

Ikus ezazu atari honetako datuen katalogoa.
Datuak beste testuinguru batzuetan erabiltzeko erabilgarri daude.
Adibidez, atmosferako kutsadurari buruzko datuak berrerabil daitezke
toki sentikorren mapa bat sortzeko arnas arazoak dituzten pertsonentzat.

Datuak berrerabiltzeko beste adibide bat izan daiteke:
pertsona bakoitzeko dauden ibilgailu kopuruen datuak erabil daitezke
errepideen mapa hobetzeko, eskaera kontuan hartuta.

https://datos.gob.es/eu

Sare sozialak

Gizarte guztiak sare sozialak erabiltzea aukera bat da
berrikuntza, irekitze eta inklusio balioak garatzeko.
Baina sare sozialak ardurarekin erabili behar ditugu,
ezagutzen ez dugun pertsonekin harremanetan jartzen garelako.

Polizia Nazionalaren Twitterra (@policia)
Gobernu eta Administrazio publikoek sare sozialak
ondo erabiltzearen adibide bat da.
Jakin nahi baduzu Poliziaren zein bulegotan
eska dezakezun zure Nortasun Agiri Nazionala
edo nola bidaiatu dezakezun autoan zure zakurrarekin,
mezu bat bidali behar duzu eta erantzuna jasoko duzu oso gutxira.
Proba ezazu!

Poliziaren Twitter kontuaren arrakasta erabiltzen duen hizkeran datza,
informala eta gertukoa baita.
Teknologiako euskarri hau Poliziarekin komunikatzeko tresna bat da
eta elkarlanerako dugun modua ere bada, informazioa ematearen bidez.

Sare sozialak Gobernu irekiaren tresna dira:

- Komunikatzeko tresna garrantzitsuena
  eta erabiliena da, erabiltzaileak gero eta gehiago baitira.
- Herritarrei askatasunez eta gardentasunez hitz egiten uzten die.
- Herritarrekin komunikazio zuzena errazten dute.
- Zerbitzu publikoak hobetzen dira,
  Administrazioak eta herritarrek elkarrekin lan egiten dutelako.
- Gai publiko eta pribatuen arteko diferentzia gutxitzen dute.
- Herritarrek Administrazioari informazioa bidaltzea errazten dute.
- Erabiltzeko errazak dira: mugikorrarekin eta etxetik.
- Inkesta eta kontsulta publikoak egitea baimentzen dute.
- Eztabaida eta lanerako taldeak sortzea baimentzen dute.
- Beste teknologia batzuk baino kostu txikiagoa dute.

2.0 tresnak

Sare sozialak dira, hala nola, blog, txat, bideoak...
Komunikazioa eraldatzen ari dira.
Gobernu eta Administrazio publikoek gero eta gehiago erabiltzen dituzte modu informal eta bat-batekoan.
Honek gerturatzen gaitu egiten dituzten zereginetara
eta nola egiten dituzten jakitera,
eta haien ekintzetan parte hartzera bultzatzen gaitu.

Gogora ezazu Administrazioarekin tramite bat hasi nahi duzunean, 39/2015 Administrazio Erkidearen Prozedurari buruzko Legeak ezartzen duen bezala egin behar duzula.

Laburpena

Gida honekin Gobernu irekia ezagutu eta ulertzea nahi dugu.
Orain zuzenean eta gertutik eragiten dizun zerbait dela
ulertzea espero dugu.

Gobernu irekia filosofia bat da, gure gizartea gobernatzeko
eta gobernuak eta Administrazio publikoa ulertzeko modu berri bat.
Filosofia hau gardentasunean, parte-hartzean eta elkarlanean oinarritzen da,
herritarren ezaguerak eta beharrak erabiltzeko helburuarekin
herritarrak gure gizartea hobetzean sartzeko.

Gure nahia da hemendik aurrera Gobernu irekiaren taldera elkar zaitezela.

Ariketak

Ariketa batzuk egingo ditugu zure institutuan ezartzeko
Gobernu irekiaren balioak: gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana.
Institutu batean gobernatzen duen organo multzo bat dago:

- zentroko zuzendaritza taldea: zuzendaria, idazkaria eta ikasketa-burua
- irakasle taldea
- eskola kontseilua: irakasleak, ikasleen gurasoak, ikasleak, administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkariak, udaleko ordezkariak.

1. Ariketa: Gardentasuna

Kontuan izan gardentasunari buruzko lege bat dagoela
Administrazioari zer informazio eska diezaiokegun ezartzen duena.
Institutu garden bat lortzeko hiru urratsak hauek dira:

- institutua zein gaietan gardenagoa izatea nahi duzun identifikatu
- behar dugun informazioa eskatu
- informazioa ikertu eta dagokion testuinguruan erabili.

1. urratsa: Gardentasunerako gaia eta helburuak identifikatu

Garrantzitsua da argi edukitzea zein arazo zehatz
gardentasun gehiagorekin tratatzea nahi dugun institutuan.
Garrantzitsua da baita ere helburua edo helburuak identifikatzea:
gai hau eta ez beste bat aukeratzeko arrazoia.

2. urratsa: Behar dugun informazioa eskatu

Eskatu behar duzun informazioa idatzizko dokumentu batean ezarri
eta aurkeztu ezazu zure institutuan.
Azaldu dezakezu Gardentasun Legean babesten zarela.
Gogora ezazu mugak daudela datu pertsonalen inguruan
eta informazio konplexua biltzeko denbora behar dela.

3. urratsa: Informazioa ikertu eta berrerabili

Datuak dituzunean, ikertu itzazu zure institutua hobeto ezagutzeko
baita bertako gauza onak eta hobetu daitezkeenak jakiteko.
Bestalde, informazioa erabil dezakezu
herriko beste institutu batzuekin konparatzeko.

Beste institutuek daturen bat ematen ez badizute,
Gardentasun Kontseiluari esku-hartzeko eska diezaiokezu,
horrela zure informazioa eskatzeko eskubidea erabili ahal izateko.

Azkenean, informazioa berrerabil dezakezu
formatu berri batean aurkezten baduzu.
Erabili zure institutuari buruz eman dizkizuten datuak
eta produktu digital bat sor ezazu
(grafikoa, aurkezpena, infografia, posterra, bideoa...).
Aurkeztu ezazu ikaskideen aurrean.
Azaldu informazio guztia eskuratzeko prozesua.

2. Ariketa: Parte-hartzea

Mekanismo ezberdinak daude ikasleek parte-hartze eskubidea erabiltzeko. Institutu parte-hartzailea lortzeko hiru urratsak hauek dira:

- institutuan identifikatu gaur egun zein parte-hartze prozesu dauden eta beste zein egon litezkeen
- parte-hartze moduak definitu: mekanismoak, baliabideak…
- parte har ezazu!



1. urratsa: Identifikatu dauden parte-hartze prozesuak

Ohikoa da parte-hartze prozesuak erabiltzea ikasgelako Ordezkaria edo ikasleak Eskola kontseiluan ordezkatuko duen ikaslea aukeratzeko.

Pentsatu nola ezarri daitekeen parte-hartzea beste egoera batzuetan.
Adibidez, ikasturte bukaerako bidaia aukeratzeko,
ikasgelaren izenean erabakiak hartzeko,
institutuko zuzendaritzan kexak edo iradokizunak aurkezteko.

2. urratsa: Parte-hartze moduak definitu

Parte-hartzeko modu ezberdinak daude:
bozketa sekretu bat boto-ontziekin, inkestak online,
erabakiak hartzeko antolatutako eztabaidak edo bilerak.

3. urratsa: Parte har ezazu!

Parte-hartzeko arrazoi eta modua aparte utzita,
erabakiak hartzearen prozesuetan esku eta parte hartu behar duzu.
Ez baduzu parte hartzen, beste ikasle batzuek egingo dute
eta zugatik erabakiko dute.

Hartu ikasturte bukaerako bidaia aukeratzeko gaia
eta data, toki, iraupen eta horrelakoak proposatu gelakideei.
Prozesu parte-hartzaile bat has ezazue elkarrekin lan egiteko.
Gero egin bideo bat, dokumentu motz bat, infografia edo aurkezpen bat
eta deskribatu prozesu parte-hartzaile hau.

3. Ariketa: Elkarlana

Ikasle, irakasle, institutuko langile, beste institutu, Udal,
bizilagunen elkarte, GKE, enpresa eta beste erakunde
publiko eta pribatuen arteko elkarlanak
zure institutuko hezkuntza hobetzea ekar dezake.

Adibidez: Poliziaren segurtasunari buruzko hitzaldiak antolatzeko
institutuaren eta dagokion poliziaren arteko elkarlana behar da.

Beste elkarlaneko adibidea: eskolatik kanpoko ekintzak antolatzeko,
hala nola, dantza, igeriketa, pintura, antzerkia...
zerbitzu hauek ematen dituzten GKE edo enpresen elkarlana behar da.

Elkarlaneko institutu bat edukitzeko hiru urratsak hauek dira:

1. elkarlana behar duten gai edo arloak identifikatu

2. eragileak identifikatu

3. elkarlana egin

1. urratsa: Elkarlanerako gaia edo arloa identifikatu

Aurkitu zein gaietan den gomendagarria elkarlana.
Ikasturte bukaerako bidaia antolatzeko elkarlana behar duzu,
gutxienez, zure gelakideen artean.

2. urratsa: Beharrezko eragileak identifikatu

Gai edo arlo bakoitzerako eragile ezberdinen elkarlana beharko da.
Horretarako, argi izan behar duzu zein diren
eta nola parte hartuko duten: aldizkako bileretan, Interneteko eztabaidetan…
Pentsatu zer pertsonek ekar ditzaketen gauza interesgarriak
ikasturte bukaerako bidaia honi buruz erabakitzeko.

3. urratsa: Elkarlana egin!

Elkarlanak esan nahi du prozesuko gaia edo arloa
eta parte hartuko duten eragileak martxan jarriko direla.
Elkarlaneko prozesu baten emaitza berritzailea izan behar da,
arazo bat konpontzeko modu berri bat.

Ondorioak dituzunean, parteka itzazu parte-hartu duten eragileekin.

Azkenean, aztertu emaitzak:
prozesua positiboa izan da? hobetzeko aldaketak egin behar dira?

Badugu institutu irekia.
Orain zer egingo dugu?

Orain zure institutua, hezkuntza talde guztiak
eta erlazioa duten eragile guztiek erabakiak partekatzen duen zentro bat da:

- Gardena da, informazio guztia denontzat erabilgarri dagoelako.
- Parte-hartzailea da, erabakiak denon artean hartu direlako.
- Elkarlanekoa da, arazoak konpontzeko barne egon direlako
  ikasle guztiak, haien familiak, hezkuntza taldea eta gizartea orokorrean.

Azken finean, zure institutu irekian aldaketak ezarri dira
Gobernu irekia presente egon dadin.

Gobernu Irekiari buruz gehiago jakiteko helbideak

Gobernu Irekiari buruz gehiago jakiteko,
hemen dituzu Interneteko orri eta esteka interesgarriak.

Adibideak daude Gobernu Irekia zer den
hobeto ulertzen laguntzeko.

Gardentasun Atariak

- Estatuko Administrazio Nagusiaren Gardentasun Ataria:
  https://transparencia.gob.es/
- Andaluziako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://www.juntadeandalucia.es/transparencia.html
- Aragoiko Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://transparencia.aragon.es/
- Asturiasko Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://transparencia.asturias.es/ast/
- Kantabriako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://transparencia.cantabria.es/es/inicio
- Gaztela-Mantxako Gardentasun Ataria:
  https://transparencia.castillalamancha.es/
- Gaztela eta Leongo Gardentasun Ataria:
  https://gobiernoabierto.jcyl.es/web/es/gobierno-abierto-castilla-leon.html
- Kataluniako Gobernu Irekiaren Ataria:
  http://governobert.gencat.cat/es/transparencia/index.html
- Ceutako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://ceuta.transparencialocal.gob.es/
- Valentziako Erkidegoko Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  http://www.gvaoberta.gva.es/es/inici
- Extremadurako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  http://gobiernoabierto.juntaex.es/transparencia/web/principal
- Galiziako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://transparencia.xunta.gal/portada

- Balear Uharteetako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  http://www.caib.es/sites/transparencia/es/inici/

- Kanariar Uharteetako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://www.gobiernodecanarias.org/transparencia/

- Errioxako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://web.larioja.org/portal-transparencia

- Madrilgo Erkidegoko Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://www.comunidad.madrid/transparencia/

- Melillako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://sede.melilla.es/melillaPortal/transparencia/se_principal1.jsp?language=es&codResi=1

- Murtziako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://transparencia.carm.es/

- Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
  https://gobiernoabierto.navarra.es/es/transparencia

- Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Gardetasun Ataria:
  https://www.gardena.euskadi.eus/hasiera

- Gobernu Irekirako Aliantza:
  https://www.opengovpartnership.org/es/
  (Open Government Partnership ingelesez)

- Botere Judizialaren Gardentasun Ataria:
  http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Transparencia/

- Madrilgo Udalaren Ataria herritarren parte-hartzea sustatzeko:
  https://decide.madrid.es/

Denontzako datu irekien atariak

Denontzako informazio publikoa ematen duten web atariak

- Datu Irekien ataria, Espainiako Gobernua:
  https://datos.gob.es/

- Datu Irekien ataria, Europar Batasuna:
  https://data.europa.eu/euodp/es/data/

Gardentasunari buruzko aholku eta informaziodun atariak

Gobernu Gardenerako aholkuak ematen dituzten web atariak

- Espainiako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
  https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/index.html

- Andaluziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
  https://www.ctpdandalucia.es

- Aragoiko Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
  https://transparencia.aragon.es/CTAR

- Asturiasko Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
  https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/asturias.html

- Kantabriako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
  https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/Cantabria.html

- Gaztela-Mantxako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
  https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/castillalamancha.html

- Gaztela eta Leongo Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
  https://www.procuradordelcomun.org/

- Informazio Publikoa Iortzeko Eskubidea bermatzeko batzordea:
  http://www.gaip.cat/es/inici/index.html

- Ceutako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
  https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/ceuta.html

- Valentziako Erkidegoko Gardentasun Kontseiluaren Ataria: http://conselltransparencia.gva.es/es/inicio

- Extremadurako Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/extremadura.html

- Galiziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria: http://www.valedordopobo.gal/es/el-valedor-do-pobo-organo-de-control-de-la-transparencia/

- Balear Uharteetako Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/islasbaleares.html

- Kanariar Uharteetako Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://transparenciacanarias.org/

- Errioxako Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/larioja.html

- Madrilgo Erkidegoko Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/madrid.html

- Melillako Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/melilla.html

- Murtziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://www.consejodetransparencia-rm.es/

- Nafarroako Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://gobiernoabierto.navarra.es/es/consejo-transparencia/consejo-transparencia-navarra

- Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasun Kontseiluaren Ataria: https://www.gardena.euskadi.eus/gardentasuna/

Gobernu Irekiari buruzko argitalpenak: ikerlanak, analisiak eta gidak

- Gobernu Irekiaren III. ekintza-plana: https://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/Gobierno-abierto/iiiPlanAccion.html

- Gobernu Irekiaren IV. ekintza-plana: https://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/Gobierno-abierto/ivPlanAccion.html

- Gobernu Irekiari buruzko Gutun Iberoamerikarra (2016): https://www.sfp.gov.py/sfp/archivos/documentos/CIGA_2016%20 final_knawtdh9.pdf

- Telekomunikazioen eta Informazio Gizartearen Behatoki Nazionala (2013). Gobernu Irekiaren eskaria eta erabilera Espainian: https://www.ontsi.red.es/sites/ontsi/files/demanda_y_uso_de_ gobierno_abierto_en_espana.pdf

- Criado, J. Ignacio; eta Ruvalcaba, E. (2017) ¿Qué es y qué se entiende por Gobierno Abierto? Análisis de la percepción e implementación del Gobierno Abierto en el ámbito local español: https://novagob.org/documentos/que-es-y-que-se-entiende-por-gobierno-abierto-analisis-de-la-percepcion-e-implementacion-del- gobierno-abierto-en-el-ambito-local-espanol

- Hainbat idazle (2014). Guía práctica para abrir Gobiernos. Manual de Open Government para gobernantes y ciudadanos: http://www2.congreso.gob.pe/sicr/cendocbib/con4_uibd.nsf/F0CE9C642E7BC17205257F1400075324/$FILE/get_file.pdf

- Xarxa d'Innovació Pública. (2014) 42 voces sobre el Gobierno Abierto: https://issuu.com/clog_unlp/docs/42-voces1

Hiztegia

- **Aliantza:** helburu batekin bat egiten duten pertsonen taldea, hainbat alderdiren arteko akordioa.

- **Berrikuntza:** ideia eta plan berriak.

- **Demokrazia:** erabakitzeko boterea herritarrek duten gobernu-modu bat da.
  Herritarrek presidentea bozkatzen dute hauteskundeetan.
  Lehendakariak gobernuan ordezkatzen ditu.

- **Elkarlana:** pertsona batzuek elkarrekin lan egiten dutenean, guztientzako hobekuntzak lortzeko.
  Elkarri laguntzen diote helburu komun baten alde.

- **Gardentasuna:** zerbait besteei den bezala erakusten denean.
  Argi eta zintzo erakusten da.
  Informazio irekia ematen zaie guztiei.
  Ez dira gauzak ezkutatzen.

- **Instituzioa:** erakunde edo entitatea.

- **Konpromisoa:** betebeharra, ardura.

- **Kontseilua:** 2 esanahi ditu.
  Norbaiti eman daitekeen gomendioa da.
  Beste pertsona batzuk ordezkatzen dituen talde bat da, adibidez, Eskola Kontseilua.

- **Kontuak ematea:** dirua eta egiten dituzun gauzak nola gastatzen dituzun jakinarazten duzunean.

- **Ordezkaria:** talde batek aukeratutako pertsona bat da, haien lekuan toki batera joan eta eskatzen diotena esan dezan.
  Adibidez, Gobernuko presidentea herritarren ordezkaria da Gobernuan.
  Edo, adibidez, gelako ordezkaria ikasleen ordezkaria da irakaslearen aurrean.

- **Parte-hartzea:** zure iritzia ematen duzunean eta talde baten edo gizartearen ekintzen parte zarenean.
  Adibidez, ikasle batek gelan parte hartzen du irakasleari galdetuz.

- **Proposamenak:** norbaiti zerbait egiteko ideia bat aurkezten zaionean.

- **Sarbidea:** zerbaitetara iristeko sarrera edo urratsa. Gida honetan informazioa eskuratzeaz hitz egiten da. Informazio bat ezagutzeko urratsa da.

- **Sorkuntza bateratua:** hainbat pertsona talderen batasuna eta elkarlana da arazo bat konpontzeko. Arazo zehatz baten inguruan lan egiten dute. Arazo hori konpontzeko ezagutzak eta esperientziak partekatzen dituzte.

- **Ustelkeria:** pertsona batek postua bere onurarako erabiltzen duenean. Kasu honetan, gobernuko postua.

- **Zerbitzuak:** gida honetan Zerbitzu Publikoei buruz hitz egiten dugu. Gobernuak herritarrentzat sortutako zerbitzuak dira. Zerbitzu publikoek herritarrei arreta emateko balio dute. Adibidez: Garraio Publikoko Zerbitzuak autobusak, metroa edo trenak dira, jendea hirian mugitu ahal izateko. Zerbitzu hori Gobernuak edo Administrazio Publikoak zuzentzen du.

“Europar Batasuna - Next Generation EU-k finantzatzen du. Hala ere, adierazitako ikuspuntuak eta iritziak egilearenak edo egileenak baino ez dira eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunarenak edo Europako Batzordearenak. Ez dira Europar Batasuna edo Europako Batzordea horien erantzuletzat hartuko”.

«Financiado por la Unión Europea - NextGenerationEU. Sin embargo, los puntos de vista y las opiniones expresadas son únicamente los del autor o autores y no reflejan necesariamente los de la Unión Europea o la Comisión Europea. Ni la Unión Europea ni la Comisión Europea pueden ser consideradas responsables de las mismas».

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
GOBIERNO DE ESPAÑA

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL
intef INSTITUTO NACIONAL DE TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO
MINISTERIO DE HACIENDA Y FUNCIÓN PÚBLICA